



ONDARROAKO
UDAL EUSKARA
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/6
Eguna: 2012-10-02
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15
Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irratiairen eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria
---------------	--

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Egindakoen berri ematea:
 - UEMAKo kide ofiziala 2012-09-08tik. Eta horrekin batera, trebakuntza ikastaroak langileentzat eta merkataritzarako eskaintzak Gabonetan.
 - Hizkuntza irizpideen aurkezpenak udal sailetan.
 - Irakurle kluba.
 - Kale neurketaren emaitzak.
 - Literatur Amuak egitaraua (urriak 31- azaroak 3).
3. Herri hizkeraren III. jardunaldia antolatzeko proposamenak.

Esan-eginak:

2. Egindakoen berri ematea:

- **UEMAKo kide ofiziala 2012-09-08tik. Eta horrekin batera, trebakuntza ikastaroak langileentzat eta merkataritzarako eskaintzak Gabonetan.**

Azaldu du idazkariak UEMAK egin duen azken Batzar Nagusiak, 2012-09-08an, onartu dituela kide berriak, tartean, Ondarroa. Hortik aurrera, dagokion kuota ordainduko du Udalak



Batzar-zk.: 2012/6
Eguna: 2012-10-02
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15
Tokia: Batzar-gela 2

eta horrekin batera lotu dira lehenengo ekintzak UEMArekin batera: trebakuntza ikastaroak langileentzat eta merkataritzarako eskaintzak Gabonetan (merkealdi kartelak eta egutegiak).

- **Hizkuntza irizpideen aurkezpenak udal sailetan**

Idazkariak azaldu du nola azken aurkezpena Hirigintza sailean egin den irizpideak argitzeko.

- **Irakurle kluba.**

Azaldu da orain arteko saioek (guztira, 4 maiatzetik) eman dutena: 6 edo 7 laguneko talde bat bildu izaten da Udal liburutegian.

- **Kale neurketaren emaitzak.**

Aurkeztu dira Ondarroako emaitzak, %93ko erabilera orokorra ematen dutenak –inoizko emaitzarik altuenak eta azken neurketa baino 8 puntu gehiago– eta adin talde guztietan, gainera: haurrek (%96,4), gazteek (%93,9), helduek (%91,0) eta adinekoek (%95,9).

Datu hori nola ulertu ez dagoela argi esan du idazkariak, nahiz eta zalantzarik ez egon metodoa zuzen aplikatu dena, teknikoki ondo egina dagoena eta akats-tartea ere oso txikia dena; hala ere, kontraste bat egitea komeniko ote litzatekeen aztertu da.

- **Literatur Amuak egitaraua (urriak 31- azaroak 3).**

Batzordeburuak eta idazkariak azaldu dute behin-behineko egitarau hau (I. Nanoipuin lehiaketa barne):

LITERATUR AMUAK
2012ko urria - azaroa

Urriak 24:

Augustin Zubikarai Letren Jaialdiaren IV. edizioa: Idazlan rallya.

2 orduko denboran istorioak idatziko dituzte herriko ikasleek aurretik emandako esaldi bat erabiliz.

- 9:30ean **Lehen Hezkuntzako ikasleek** Txomin Agirre Udal Liburutegian eta Errebala Txikiñe gaztelekuan.
- 10:00etan **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek.**
- 12:30ean: **Norte Apache** taldearekin Rap saio bat Gaztetxean.

Azaroak 1:

Iluntzean, Kafe Antzokian *Txori Mugariak* performancea, **Maialen Lujanbio eta Xabier Erkizia.**

Azaroak 2:

- 11:00etan eta 17:00etan, *Idazlea zeu zara* antzezlan, **6 urtetik 12 urte bitarteko umeentzat.** Saio biak Liburutegian.

- 22:00etan, Kafe Antzokian, kontzertua: **Anari**



Batzar-zk.: 2012/6
Eguna: 2012-10-02
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15
Tokia: Batzar-gela 2

Azaroak 3:

- 10:00etan, Liburutegian: Ondarroako irakurle kluba: **Harkaitz Canorekin eta Julen Gabiriarekin.**

- 19:00etan:

- Idazlan Rallyko irabazleen sari-banaketa.
- Nanoipuin lehiaketako sari-banaketa.
- Augustin Zubikarai Beka Sariaren berri: XII. edizioaren beka proiektu berria aurkeztea. **Xabier Mendiguren, Ana Urkiza eta Leire Bilbao**

- Ondoren, Sardinerak dantza saioa, Kresala dantza taldearen eskutik.

- 20:00etan: Musika eta Letren aldia, irakurraldia eta musika uztartuta: **Keu, Jose Mari Urteaga, Leire Bilbao, Ana Urkiza, Mikel Etxaburu eta Kemen Lertxundi.**

Herrian zehar, egunero, herriko txoko ezberdinetan: **HITZPILU** Esaera zaharren txapelketa. Ondarroako herri hizkerako berbak erabiltzeko lehiaketa.

I. NANOIPUIN LEHIAKETA

2012ko udazkena

GAIA ETA LUZERA

Parte-hartzaile bakoitzak nanoipuin bi bidali ahal ditu, gehienez, 140 karakterekoak, eta gaia, berriz, librea.

EPAIMAHAI

Herriko idazle hauek osatuko dute: Ana Urkiza eta Leire Bilbao idazleek.

Eurek aukeratuko dituzte ipuinik onenak, kontakizunik landuenak eta literatur baliorik handiena dutenak; hiru, guztira. Hartutako erabakia apelaezina izango da.

SARIAK

Hiru sari emango dira: Lehenengo saria: 400,00; bigarren saria: 200,00 € eta hirugarren saria: 100,00 €.

EPEAK

2012ko urriaren 25a arte aurkeztu ahal dira nanoipuinak. Epaia, berriz, **azaroaren 3an** emango da Ondarroako Kafe Antzokian, iluntzeko 19:00etan egingo den ekitaldi batean, eta horren ostean jakinaraziko da Ondarroako Udalaren webgunean.

NOLA PARTE HARTU?

Ondarroako Udaleko posta elektronikoa honen bidez: mrey@ondarroakoudala.net. Ezizen batez sinatua bidali zure nanoipuina eta baita zure izen-abizenak, NAN zenbakia eta telefono-zenbakia ere.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

Edozein pertsona eta edozelako adina duenak. Pertsona bakoitzak, gehienez, nanoipuin bi aurkez ditzake.

Informazio gehiago:

Ondarroako Udal Euskara sailean 946 833 668



ONDARROAKO
UDAL EUSKARA
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/6
Eguna: 2012-10-02
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15
Tokia: Batzar-gela 2

3. Herri hizkeraren III. jardunaldia antolatzeko proposamenak.

Proposamenak egiteko eskatu zaie batzordekideei. Bakarne Aretxabaletak proposatu du gai bat: herri euskararen erabilera sare sozialetan

ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-06-19koa.
- Kale-neurketaren emaitzak kontrastatzek beste neurketa bat eskatzea.
- Hurrengo batzar-egun hau finkatu da:
 - Urriak 29, 18:30ean: Herri hizkeraren III. jardunaldia antolatzeko.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey